

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Funtsean, bezeroak dira negozio-ereduren bihotza eta beren beharrianak hobeto asetzeko bezeroak ezaugarri komunak arabera taldekatu behar ditugu.

Gure proposamena garraioak ekoizten dituztenei zuzenduta dago neurri handi batean. Hiru segmentazio ezberdin dituela esan dezakegu: alde batetik, ekarpena gizarteari eskaintzen denez, onuraduna gizartearen bere osotasunean izango litzateke. Kontuan harturik, gaur egun trafikoa duen garrantzia, izan ere, gaur egungo gizartearen ia denok egunero behar izaten dugu transportea edozein lekutara joateko, alantza, lanera, ikastetxetara edota beste hainbat lekuetara joateko, beraz ekarpena oso beharrezkoa eta funtsezkoa dela argi dago. Bestetik, alkohola eta bestelakoak detektatzen dituen gailua, gidari profesionalen garraioak ekoizten dituzten fabrikanteei salduko diegula jakin badakigu, (beraiek ekoizterako momentuan, gailu hau ere kontuan har dezaten eta honela gure helburua lortu. Izan ere, hasiera batean gidari profesionalen ibilgailuetan jarriko dugun arren, gure helburua, aurrera begira, ahalik eta ibilgailu gehienetan jartzea da, gizarteari ahalik eta ekarpen handiena egiteko asmoz.) Horrez gain, azkeneko segmentazioari erreparatu, gure bezero nagusiak ibilgailu profesionalen ekoizleak dira, honakoei konbentzitu behar baitiegu guk saltzen dugun produktua onuragarria eta oso baliagarria dela gizartearen segurtasunarekiko. Horren harira, derrigorrezkoa ikusten dugu gure produktua ezinbestekotzat hartzea eta arau bezala onartua izatea legisladoreen aldetik, hortaz, hauekin ere negoziatu eta adostasun batera iristea komeni zaigu.

